

Igandero bisitak, Sagardoetxea barrutik ezagutzeko

Kronika - Erredakzioa 2021-02-11 00:00



Hiru txandatan egingo dituzte (11:00, 12:00 eta 13:00), eta aldeztu aurretik egin behar da erreserba. Igande honetarako, aukera.

Bere 15garren urteurrenean, Sagardoetxea barrutik ezagutzeko bisita gidatuak jarri dituzte martxan, otsailean zehar. Hileko lau igandeetan izango dira. Aurreko igandean egin zituzten lehenak, eta igande honetan izango dira bigarren bisitak, hiru txandatan: 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan.

Doakoa da bisita gidatuetan partehartzea, baina aldeztu aurretik egin behar da erreserba: 943 55 05 75 telefonoan, edota info@sagardoetxea.eus helbide elektronikora idatzita. Zehaztu beharko da zein ordutan egin nahi den bisita, eta zenbat pertsona joango diren. Izan ere, bisita bakoitzeko aforoa mugatua izango da: 4 pertsona eta gida egon daitezke, gehienez ere.

Modu horretan, sagardoaren kulturari bultzada ematen jarraitu nahi du Sagardoetxeak, sagardogintzak bizi duen une zailean: «urte sasoi honetan, herriko sagardotegi ezberdinak bisitatu eta sagardotegiko esperientziaz gozatzen egon behar genuen. Baina osasun egoerak momentuz ez du horretarako aukerarik ematen. Pandemiaren egoera dela eta, 2021eko sagardotegi denboraldiaren hasiera atzeratu eta sagardotegi batzuek berandu-ago irekitzeko erabakia hartu dute. Hala ere, Sagardoetxeak zabalik dauzka bere ateak, sagardoaren kulturari barneratu nahi duten guztientzat. Horrela, museoa bera eta bere jardura herritarren artean ezagutzera emateko, antolatu ditugu bisita gidatu hauek, Sagardoetxea barru-barrutik eta osotasunean ezagutzeko», nabarmendu dute.

[Kultura Astigarraga](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez Kronikalari!

[Erantzun](#) ▼

Ohorezko Mailako
Hernanik garaipenarekin

'Kanona zalantzan
jartzen' mahai ingurua,

Buztinarekin eskulanak,
gaur berriro

Aho zabalik, larunbateko
ikuskitunean



Ikusienak



[Gaurtik ostiralera arte zabalik, udaleku irekietan zein kirol udalekuetan izena emateko epea](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Garaipena lortu zuen atzo Hernanik El Rion, eta finalerdietarako sailkatu da](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Juul literatur hauteskundeetan aukeratua, Alai Zubimendiren lana](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Ezustekoa Zinkoenean, gaur goizean](#)

Kronika - Erredakzioa
api 24 [Hernani](#)



[Langileen Nazioarteko Eguna dela eta, mobilizazioak antolatu dira larunbaterako](#)

Kronika - Erredakzioa
api 27, 00:00 [Urumea](#)



[Aho zabalik, larunbateko ikuskizunean](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Astigarraga](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika@kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARRERMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[ANBOTO](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[AIURRI](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GOIENA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[MAXIXATZEN](#)

[PLAENTXIA](#)

[ALEA](#)

[28 KANALA](#)

[ANTXETA](#)

[BARREN](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[GEURIA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[NOAUA](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[AMEZTI](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)